

Izeba Irisenda

Karlos Linazasoro

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1990



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Izeba Irisenda

Karlos Linazasoro

Julene Azpeitia 3. ipuin lehiaketa

1990

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Karlos Linazasoro (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Gure zoritxarrerako huraxe izango zen izeba Irisendaren baserrian igaroko genuen azken uda polita. Urtero lez, eskola-egun aspergarriak amaitu eta uri handitik ihes egiteko gogo biziak sentitzen genituen anaia Pablok eta biok. Horretarako, ordea, atera beharrak zeuden nota onak ateratzearren, batik bat azken hilabete luze sargoritsuan, barruan duzun jakinduria guztia erakusteko garaia heltzen denean, orduan jakin behar izaten baita neurria ematen, ez lehenago ez beranduago, eta egia esanda guk, anaia Pablok eta biok, aise gainditzen genuen neurri hura, Bob Beamon-ek errez gainditzen zituen bezala sei metroak, edo zazpiak akaso. Horrek ez du esan nahi beti primerako notak ateratzen genituenik, ordea abai tamainakoak, klaseko tontoen artean inbidia pixka bat sortzeko modukoak, ze guk, anaia Pablok eta biok abildade izugarria baikenuen bikainak lortzeko, eta gutxitan ibili ohi ginen hortik behera, desohore bat zelako gure gurasoentzat batetik, eta bestetik geure buruei ezin genielako hori baino gutxiago ameto egin, bekatu litzatekeelako Jainkoak eman zigun adimen naturala ez profitatzea behar moduan eta urguiluz.

Uztailak lehen eguna bete zuenean beroa egiten zuen kalean sekulakoa. Partitzeko garaia zen eta ezin kontentuago geunden anaia Pablo eta biok aurretik genituen bi hilabete zoragarriak hastear zeudenez. Anaia Pablok poltsa gorria zeraman zintzilik eta nik berriz urdina; eta anaia Pabloren hortzeskubila gorria zen eta nirea berriz urdina; eta anaia Pabloren pijama eta zapatilak gorriak ziren eta nireak berriz urdinak. Eta hola beste gauza guztiekin ere; jertseak, galtzak eta kantzontziloak. Eta anaia Pabloren biblia ttikiak gorriak zituen tapak eta nireak berriz urdina, eta bibliak izeba Irisendaren baserrira joateko eraman-beharreko gauza ziren, derrigorrezkoak, eta gauero-gauero oheratu aurretik pasartetxo bat irakurtzen genuen txandaka liburu zahar hartatik, batean Genesiaren zati bat zela, bestan Apostoluren baten gutuna, hurrena berriz Lebitikoa edo Salmoak, eta zer esanik ez Apokalipsia zeina irakurtzen zuen izeba Irisendak begiak handiturik eta izu aurpegiz, eta kontua da beti bagenuela zer irakurria, jakingo duzuen bezala liburu hori izugarri lodia baita, sekulan amaitzen ez den horietakoa, eta bagenuen beraz zerekin aspertua gauak joan gauak etorri. Ordea, anaia Pablo eta biok konturatuko ginen bazela liburu antigual hartan pasarte bat izeba Irisendak inoiz irakurri ez ezik aipatu ere ez zuena egiten gure aurrean, eta pasarte horixe zen hain zuzen El Cantar de los Cantares izenekoa, eta orduan anaia Pablok eta biok barrundatu genuen han kontaktzen zirenak ederrak behar zutela izan dudarik

gabe, beste pasarte guztiak baino hagitx interesgarriagoak, bestela ez baitzuen gure izeba Irisendak pasarte hura hainbesterainoko errezeloz ezkutatuko, eta horretaz ohartu bezain fite hasiko ginen huraxe irakurtzen, eta lehen esaldiarekin batera konturatuko ginen oso *bestelakoak* zirela han kontatzen ziren gauzak, arras interesgarri eta politagoak, eta nahiz erdiak ere ez ulertu, harrapatu bai harrapatzen genion beste kutsu zerago bat, nola esango nuke, modernoxeago bat, gaxixeago bat. Eta gogoan dut oraindik hurrengo goizean jaiki eta gosariarekin bat galdetu genionean anaia Pablok eta biok pasarte haren berri jarri zigun harridura aurpegia, ez baita egiaz ahazteko modukoa, hain gelditu baitzen gaixoa harri egina, gogortua, kolorea joanda apika non asaldu egin ginela izeba Irisendaren erreakzioa ikusiz, eta pentsatu genuen jarraian bekatu mortala egin izango genuela akaso hura galdetzearekin eta ez geniola izeba Irisenda maiteari halako disgusturik eman behar gehiago. Berak, guk jada erantzunik espero ez genuenean, esango zigun betiko ahots leunez ez genuela hura irakurri behar. "Hori ez zen umeentzat idatzia izan, helduentzat baizik, eta noizbait nagusitzen zaretenean orduan izango duzue beta soberan pasarte hori leitzeko" adierazi zigun zerbait bukatutzat eman nahi zuenean egiten zuen imintzioa eginez. Hor ez ziren, ostera, kontu guztiak amaituko, guk halaxe uste izan bagenu ere, ze egun hartan bertan izeba Irisendaren errieta ttikia entzun ondoren, anaia Pablo eta biok logelara joan, eta pasarte hura irakurtzeko desio bizitan geundenez, norberak bere biblia mesanotxetik atera eta pasarte hura bilatzeari ekin genion gartsuki, eta ordurako buruz genekien orrialde debekatura iristean ezuste latza jasoko genuen aurrena anaia Pablok eta gero nik, ezen orrialde haiek moztuak izan baitziren kuidado handiz eta arrastorik utzi gabe, izeba Irisendak bai baitzekien segurtasun osoz ez genuela tentalditik libratzeko behar adina borondate izango, aitzitik baizik, bere debekua adierazi ondoren lehen baino desio biziagoak sentituko genituela bai anaia Pablok eta bai nik pasarte zoragarri hura irakurtzeko, izeba Irisenda gaixoak primeran ezagutzen baikintuen, gure amak bezain ongi seguruenera.

Halaz ere, nahigabe hura ez zen hutsaren hurrengo baizik izango beste batean eman genionarekin konparatzen badugu. Hura bai izan zela sonatua! Eskerrak gure izeba Irisenda hain ona zena, hain maitagarria, ez ziela gure gurasoei haren berri eman nahi izan, bestela akabo guretzat udako oporrak eta erregeetako erregaloak eta aste santuko bidaiak ere. Bada kontua da halako batean izeba Irisendak mandioan gordetzen genituen zenbait errebista lizun aurkituko zituela, ez guztiak Jainkoari eskerrak, ze sakabanatu egiten baikenituen zulo zein gordeleku desberdinetan norbaitek aurkituko lituzkeen kasurako edo, eta eskerrak aurrez hartu genuen neurri hari esker bestela bi errebista aurkitu beharrean aurkituko baitzituen hamabi, eta orduan bai izango zela etxe hartan iskanbila sonatua, paregabea nolabait izendatzekotan, eta orduantxe bai amaituko lirakeela gure egunak eta gauak ere. Gainera, izeba Irisendak puskaka-puskaka irentsiarazi zizkigun bi errebistak gordetzen genituenetatik itxurosoenak ziren, bertan ez baitziren zenbait titi (aldian bi esan nahi dut) eta bizpahiru ipurdi besterik agertzen, eta besteetan aldiz denetarik ikus zitekeen, bai atzekoz aurretik, bai zeharka edo soslaian, neskatzak zilipurdika eta era guztietako zikinkeriak eginez. Beraz, alde batetik kontent egoteko modukoa zen, gaitzerdi besterik ez baitzen jazotakoa, eta bestetik ez zen hain alai egoteko modukoa, ezen oso-osorik irentsi genuen errebista zakar bezain gustu txarreko hark astebeteko tripako mina ekarriko baitzigun anaia Pablorki eta bioi, eta hori gutxi balitz, aste gutxia mantzanila-ura edanez pasako

genuen bestelako mokadurik probatu gabe. Sendatu ginenean izeba Irisendak musu bana eman eta serio antzean esan zigun:

—Ikusten duzue ze enpatxuak ekartzen dituzten halako zerrikeriek, ezta? Hortaz, ikasi duzue lezioa: halako mokaduak ez dira aho finentzat eginak.

Kaleratu bezain fite koadrila osoa bildu genuen urgentziazko bilera bat ospatzearen, eta joko haiekin amaitu beharra zegoela adierazi genien lagunei geurearen berri eman ondoren. Baietz esan ziguten guztiek, ulertzen zutela anaia Pablo eta bion postura, eta pena bat zela ere adierazi zuen bat baino gehiagok, eta zer egingo zitzaiola bada, mundu honetan gauza guztiek zutela hasera nola amaiera, eta argi zegoela geure jokoei iritsia zitzaiela berea, pasa genituela une ahaztezinak eta aurkituko genuela beste zerbait haiek ordezkatzeko. Eta hala, mandioan gordetzen genituen beste hamar errebista politak bildu eta su eman genien guztiei harkaitz urrun batzuen artean prestaturiko sute koloretsuan, eta ia guztiek negar egin genuen gure nobia eder haiek nola kiskaltzen ziren ikusiz, lehenik aurpegia eta gero izterrak eta ipurdia, eta azkenean petxuak eta titiak eta erdiko titiburu beltz edo more haiek, ze pena, hainbeste lan hartu kolezio itxuroso hura biltzen, hainbeste egun alai elkarrekin pasa eta hala amaitu behar egunak, itxuragaiztoan eta sorginak balira bezala. Eta errauts beltzak eta hondakinak besterik gelditzen ez zirenean akordatu ginen nola egoten ginen ezkutatuak izeba Irisendaren irteeraren zain, elizara edo dendara, edo behiak errepatzera igual, eta nola irteten ginen geure gordelekuetatik zitzu bizian bere etxetik irten bezain pronto eta igotzen genituen mandioranzko mailadi gardamuz josiak edozein korrikalarik baino mila aldiz arinago, eta behin hara iristean kukumikura botatzen genuen ze txapelketa motara jokatu, baina betiere begi erne egonez, alerta gorrian eta zelatan izeba Irisenda garaiz aurretik itzuliko zen kasurako. Behin kukumiku egin ondoren bakoitzak bere gordelekuetik errebista bat ateratzen zuen, norberak gustukoena zuena, eta sei lagunak ilaran jarri, galtzak zein kantzontziloak txorkatiletaraino jaitsi eta errebista begien bistan egoki pausatu eta han hasten ginen guztiak batera, seinalea egin ondoren, zakilari indarrez eta deskantsurik gabe gora eta behera, behera eta gora eraginez ea nor esnetuko lehena eta besteen aurretik. Txapelketa mota honetan, zeinari guk deitzen genion *esnetze-lasterketa*, edonork irabaz zezakeen, eta normalean txandakatu egiten ziren garaileak, batzuetan Ziriako, bestetan Gregorio, anaia Pablo ere bai zenbaitetan edo ni neroni. Baina lasterketa honetan errez gertatzen zen tranpa egitea, ze norbaitek seinalea egin urretik izan baitzezakeen zakila jada xuxen eta gori-gori jarria, mila arrazoiengatik, eta bada hark abantaila handiz jokatzen zuen besteen aldean, eta beraz tranpa txiki haiekin amaitzeko esnetze-lasterketaren aurretik guztiok zakila mandioko ur-zorrotada freskoaren azpian jartzea deliberatu genuen aho batez, hala guztiok baldintza berdinetan ospa genezakeen lehia. Eta esan bezala esnetze-lasterketan edonork irabaz bazezakeen, ez zen berdin gertatzen *altura-lehiaketan* edo urruntze-saioan, bi hauetan beti Lanbertok irabazten baitzuen, aise eta diferentzi handiz, ezen gure adiskide Lanbertok hamasei zentimetroko zakila baitzuen, besteona baino dezente luze, lodi eta beltzagoa ere bai, bera beltzaxka zelako oso-osorik noski, ile puntetatik behatzetaraino, eta noski, geurearen doblea izanik kasik, esatea ere soberan legoke, bada sekulako abantaila zuen beste lehiakideen aldean, zakil hartatik ateratzen zen isuria berebiziko indarrez ateratzen baitzen normalean, eta hala egurrezko hormaren kontra itsatsiak gelditzen ziren isurien neurketak egin ondoren zeharo argi gelditzen zen zein zen altura-lehiaketan erabateko nagusi, gure Lanberto alegia, metro t'erditik gora uzten zuelarik beti

arrastoa, gainerakook metro eskasera heltzeko ahalegin izugarria egin behar izaten genituen bitartean. Eta urruntze-saioan ere berdin gertatzen zen: lurrian klarionaz egiten genuen marraren atzean ipini eta orduan ere Lanberto izaten zen garaile diferentzi handiz, bere isurketak bi metrotako ibilbidea egiten baitzuen, besteaak doi-doi metroa egiten zuenean, eta batzuetan hortik gora ere ibiltzen zen Lanberto, bere errekor ofiziala mi metro eta hogeita lau zentimetrotan neurtua zegoelarik, eta alturakoa berriz metro eta hirurogeita hamabi zentimetrotan.

Eta guk ulertzen ez genuena zen hain gorputz ttiki nola kaxkarrean hainbeste indar ezkuta zitekeen, nola izan zezakeen Lanbertok guztion inbidia zen zakila, hainbeste ile kixkur dotorez apaindua, besteok artean bizpahiru ile lardaskatu triste besterik ez genuenean, nola egon zitekeen beti prest lehiarako, sekulan nekatuko ez balitzaio bezala pitilina, ze beregatik izango balitz egun osoan jardungo baikenuen jokoan, bost, sei, zazpi aldiz esnetu bitartean akaso, eta gu berriz bitan esnetzeko ez dut esango gaizki ibiltzen ginenik, ez, baina hirugarrenerako besoak indarge eta belauak tolesten zitzaizkigun eta abegiak lausotu eta zakilean min antzeko zerbait jartzen zitzaigun, gero gorputz osora barreiatzen zena. Eta batzuetan, Lanbertok bultzaturik gehienetan, hainbeste lehia egiten genituen, neskatxa haien animoz, non ondoren erabat jota igarotzen genituela bizpahiru egun, apetiturik eta oinak lurretik altxatzeko sasoirik gabe, eta orduan larritasuna sortzen zen gure etxeetan, pentsatzen baitzuten harrapatua izango genuela gripea edo antzeko eritasunen bat, ez zela batere normala kolore baxu eta begietako erlantzaz itzalixe hura. Eta egun haietan gu ere dezente kezkatzen ginen, eta pentsatzen genuen on Eutimiok arrazoi izango zuela akaso adierazten zuenean zakilari eragitea bekatu zela, bekatu larria gainera, kondentatu egiten zituela Jainkoak halako lizunak eta gaixotasunak bidaltzen zizkiela gaztigu gisa, gripea eta sukarra eta buruko minak, eta horiek baino latzagoak ere bai, tonto gelditzeko arriskua jasaten zuela hala jarduten zuen gazteak, eta kontuak egiteko denboraz aurretik. horregatik asaldatzen ginen gu dezente egun triste haietan, Lanberto ezik, ezen berak ez baitzuen gorputzean beherakadarik kausitzen, ohiz bezain sasoiatsu ibiltzen baitzen egun haietan ere batetik bestera, gure ahuleriari barre eginez. On Eutimioren hitzak egia ote ziren galdetzen genionean tontotu egin al ginen erabat arrapostuz, eta segidan betikoa esaten zigun, ea ez al genuen inoiz gizondu behar ala ze arraio, ume-koskorrak izaten jarraitu behar al genuen beti, nola joango ginela berarekin bada *Goiko-Benta*-ra oraindik txatxukeritan pentsatzen jarraitzen bagenuen.

Horixe zen, hain zuzen ere, koadrilaren ilusiorik handiena, noizbait Goiko-Bentara joatea, behin Lanbertok kontatu zigun pasadizo harez gerotik ez baikenerabilkin beste pentsamendurik buruan, Goiko-Bentara joan eta han Lanbertok egin zuen berbera egitea, eta horrexegatik botatzen genuen astero-astero duro bana, edo gehiago igual, noizbait behar adina diru bildu eta hara joateko. Ordea horretarako bi mila pezeta behar omen ziren gutxienez, eta hori prezio berezia egiten zigutelarik, Lanbertok bai baitzuen etxe dotore hartan señorita lagun bat, eta señorita hark prezio berezia egingo ligukeela Lanbertoren koadrilakoei noizbait joatera animatuko bagina, eta ez kezkatzeko adinarengatik, gaztetxoentzat bazegoela ate berezi bat eta handik sartu-irten gintezkeela inork ezer sumatu gabe, eta animatzeko, ederki pasako genuela berarekin-eta. Eta horretan ez zegoela duda egiterik esaten zuen Lanbertok begiei buelta emanez, ederki ez ezik espezial ere pasatzen zela, inon baino hobeto, eta bere estreinaldia nolabait esplikatzen esaten zigun ez zegoela

munduan halako gauzarik, ezta antzekorik ere, hura zela benetan munduko inbentorik onena, eta guk orduan xehetasunak eskatzen genizkion behin eta berriz, adieraz zezala poliki eta pausoz pauso guztia, berak ordea ezetz, ezin zela hura hitzekin esplikatatu, "da, ba zeruan egotea bezala, hegan joaten zaizu gorputza urrunera, buelta ematen diozu munduari sekulako abiadan, hori gozamina mutilak, hori gozamina!", eta hitz eskas horiekin bukatzen zuen adierazpena, eta gu noski ez ginen asebetetzen eta galdetzen genion mandioan egiten genuenarekin zerikusirik ba ote zuen beste hark, eta orduan berak segituan erantzuten zigun baietz, bazuela zerikusirik franko baina Goiko Bentakoa mila aldiz hobea zela, eta akaso bi mila aldiz hobea ere bai! Kontua da zorioneko bi mila pezeta haiek lortzeko bageneramatzala hiruzpalau uda aurrezten eta aurrezten, eta ia egunero begiratzen genuen txanponak gordetzen genituen kutxatxoan, eta huraxe hartu eta irauli egiten genuen mahai gainera eta kontatu egiten genuen atzera ere txanpon bakoitza poliki eta hutsik egin gabe, eta ostera ere hagitz desanimatzen ginen oraindik bi mila ditxosoetarako dezente falta zela ikustean, eta kutxatxoa berriz ere gorde eta elkarri begira-begira gelditzen ginen esatekorik asmatzeke, hondoratuak zeharo eta nor baino nor buru-makurrago. Hori gutxi balitz gainera, halako egun parte txarreko batean Lanberto hurbilduko zitzaigun sekulako aurpegi tristez, eta anaia Pablok eta biok, eta baita gainerakoek ere, pentsatu genuen hil egin izango zitzaiola norbait etxean, ez aita edo ama edota amona Florentzi, ez, baina bai akaso *Juanito* tximua edo *Kosme* papagaioa edota *Domingo* sugea, edo beste animalia bat igual, ezen aurpegia trixteska bazekarren ere, ez zen familiartekoren bat hiltzen zaizunean jartzen denaren adinakoa, eta beraz pentsatu genuen hil egin izango zitzaiola bere aitaren herrialdetik ekarritako piztiaren bat edo beste. Oker genbiltzan zeharo geure ustetan auzia hori baino grabeagoa baitzen, mila aldiz grabeagoa esango nuke nik, Lanbertok ahots hautsiz kontatu baitzigun izana zela bart gauean bere señorita lagunarekin eta hark esan omen zion, burua dotorezia handiz laztantzen zion bitartean, sentitzen zuela baina ezinezkoa zitzaiola tarifa hura mantentzea, beste ehun duro gehitu behar zitzaizkiola bi mila pezeta haiei, paseak zirela hiru urte luze tarifa hura jarri zigutenetik eta ea bada nola ez ginen Goiko-Bentatik azaldu, bizimodua izugarri garestitu zela azken urteetan eta berak ere igo beharra zeukala tarifa derrigor, baina halaz ere guri ehun duroko beherapena egingo zigula hamasei urteak bete bitartean.

Huraxe izan zen uda hartako notziarik txarrena eta bertan behera uzteko zorian izan ginen guztia, orduan argi gelditzen baitzen ez genuela dirutza hura inoiz bilduko, guk sosak aurreztu baino aiseago garestitzen zelako bizimodua, eta igandeetako gure paga eskasa zelako oso halako enpeinutan sartu ahal izateko. Beherakada-une haietan ordea erabakigarria izaten zen Lanbertoren iharduna, berriz ere hasten baitzitzaigun kontatzen nola lapurtu zizkion amona Florentziri mesanotxetik mila eta bostehun pezeta haiek, eta gautu bezain laster, eta Kosme papagaioaren hitz-parrastaden erdian, abiatu zen beste muinoan zegoen Goiko-Bentarrantza, bizi-bizi eta diruak eskua kiskaltzen ziola, eta behin han ezbai une larriak izan omen zituen nola jokatu jakin ezean, eta hala zegoela txis-txis egin omen zion norbaitek goikaldetik, eta harantz begiratu eta neskato ilehori lerdan bat bistatu omen zuen ezker titia ageri-agerian zuela, eta itxaron zezala unetxo bat eskatu omen zion Lanbertori, jaitsiko zela-eta segituan.

Hamaika alditan entzuna genion kontaera Lanbertori baina ez ginen hura entzuteaz inoiz nekatzen, iruditzen baitzitzaigun anaia Pablori eta bioi Bibliako

edozein pasarte baino arras polit eta interesgarriagoa, eta hobe kontatua ere bai, Lanbertok dohain bereziak baitzituen istorioak kontatzeko, batik bat Goiko-Bentako hura kontatzen zuelarik egoki eta bizkor-bizkor. Beti mesedegari suertatzen zitzaigun Lanbertoren iharduna, lipar haietan gehien bat, hain erori eta ondoezik sentitzen ginenean, eta bazekien bai berak nola osatu gure animo nola bizigogoak, nola gure barrenak eta hankarteak berpiztu: "eta hartara jaitsi zen bai neskatila eder hura, tapa-tapa eginda oraingoan, eta galdetu zidan igo nahi al nuen berarekin logelara, eta berriz ere nik ahoa ireki aurretik itaundu zidan ez al nintzen ni Mohamed eta Martinaren semea, eta nik baietz noski, neu nintzela bailarako mestizo bakarra eta nik izan behar nuela derrigor hauen semea, eta orduan irribarre txuri bat eskaini eta ez kezkatzeko esan zidan, ez ziola inori esango, kuriositatea besterik ez zela, eta artean estreinatua al nintzen, eta nik lotsa-lotsa eginda eta ezetz, horretara etorri nintzela bada, behingoz estreinatuzera, berandutxo igual baina ez nuela aurretik betarik edo okasiorik izan, eta ea zenbat urte nituen bada, eta nik erantzun nion hamabi, eta ez arduratzeko larregi esan zidan orduan señoritak, hamabi urte edade ona zela hartarako, bazela mundu honetan makina bat Jainkoren grazia probatu gabe ere joaten zenik.

Urduri xamar nindoan, egia esan, mailadietan gora, bihotzak taupa eta taupa gogor astinduz petxua, eta ostera ere taupa eta taupa, agure baten bihotza baino larriki abailduagoa bainuen nirea, eta ezertan hasi aurretik nahikotxoak ote ziren nekartzan hirurehun duroak, nire bizitza guztiko aurrezkiak zirela esan nion gezur galanta boteaz, eta berak, baietz, egingo genuela gaurkoa amona Florentziri lapurtutakoarekin, amonak poza handia hartuko lukeela bere dirua probetxuzko zerbitzetan gastatu nuela jakingo balu, eta ez izateko kezkarik diru apur hura ebatsi izanagatik. Hurrena irribarre egin, bi begiekin keinu polit bana egin eta lasaitzeko esan zidan soineko zurixka txorkatiletaraino jausten uzten zuen bitartean, eta hala gelditu zen nire aurrean amabirjin bat baino dotoreago eta zuriago eta biluziago, Jesus, Maria eta Jose! eta ni tonto-tonto gelditu nintzaion begira luzaro, bazegoen han zer ikusia-eta, bazegoenez han zer ikusia, eta berak nire zorabio antzeko hura antzematean ongi al nengoen galdegin zidan prestuki, eta nik erantzun nion ez nintzela nire bizimodu osoan hobeto sentitu, ea zer gertatzen zitzaidan orduan bada, ea ez al nuen estreinatzeko gogorik, eta nik baitez ordea, sekulakoak eta bizi-biziak, baina asmatuko ote al nuen, asmatuko ote, eta berak irri egin eta baietz mutila, horretan mundu guztiak asmatzen zuela, ezjakinenak ere bai, eta nik orduan galdetu nion animaliek egiten zuten tankeran edo egiten al zen gurea ere, makina bat animalia nituela nik etxean bertakoak zein kanpotik ekarritakoak, eta begira-begira jarduten nuela zelatan haiei garaia iristen zitzaienean, oso polita zela hura ikustea, eta diferente xamar moldatzen zirela batzuk eta besteak larrua jotzerakoan. Berak jarraian arrapostu zidan baietz, haiek ere gure antzera moldatzen zirela baina gizakiok amodio handiagoz egiten genuela plazer hura, goxoago, eta ea prest al nengoen, eta kentzeko bada galtzak eta gainontzeko arropa guztiak, eta señoritak agindu bezala arropa guztiak erantzi eta larrugorritan (beltzetan esatea egokiago ote!) gelditu nintzen nire señorita, Trinidad izena zuela egingo nuke apustu, txunditu egin zitzaidan artean gogor bezain puztua nuen zintzilikarioa begiztatzean, txunditu edo beharbada alaitu, bietako bat, aurpegian irudikatu zitzaion keinu hark ez bainekien nik bete-betean zer adierazi nahi ote zuen, eta gauza da nik aparatua sekulan baino gori eta tiranteagoa sentitzen nuela Trinidaden gorputz biluzia ikustearekin soilik. Ezen, lagunak, ez baitzen gutxiagorako ikusmira hura,

eta señorita maitearen soin miresgarri hura erreparatzearekin bat akordatu nintzen Don Justinoren lezio aspergarriarekin eta berak arbelean hain trakets eta hain kaxkar marrazten zizkigun irudi geometrikoekin, eta pentsatu nuen nire artean haiek bai zirela benetako irudi geometrikoak, Trinidaden gorputzean miratu zitezkeenak alegia, eta ez Don Justino txatxu hark erakusten zizkigunak, eta erakutsiko niokeela nik benetako triangelu bat egiten, ez zela noski batere nekosta señoritaren tripatxo azpian fijatu ezker, hark baitzuen, norbaitek izatekotan, munduko triangelu bikain zein perfektuena, bere iletxo hori kixkur eta guzti. Eta lezioekin jarraituz, berriz ere esango nioke Don Justino aspergarri hari errepara zezala poliki Trinidaden bular marduletan eta esan zezala gero noizbait ikusi al zuen haiek baino zirkunferentzi borobilagorik, bere radio eta guzti, eta ez al zien hartzen ipurtalde zuri haiek mendi tontor haizetsuen irudia, edota sabelalde hari konbexutasun apur eta ezin aproposago bat, eta zer esan izter haien gainean, pago pertxenten enbor irmoak baitziruditen, eta lepo zein buruak antigoaleko jainkosen irudia zizelatuak oso-osorik. Esaten nuen bezala, larru bixi-bixitan geunden señorita eta biok ordurako eta ni artega xamar nengoen eta makil xuxen hura nola estali ezin asmatuik nenbilen, batean eskua jarri, bestean jira eman, señoritak etzateko lasai eskatu zidan arte, eta ez tapatzeko hura izugarri galanta nuela-eta, eta bat-batean gainean eseri zitzaidan eta eskutxoarekin lagunduz txulo txiki hartatik barrena sarrarazi zuen nirea abildade ikusgarri, eta mugitzeko adierazi zidan hurrena, poliki eta gora-behera, beheara gora, baina hark gutxi iraungo zuen, bi minutu eskas besterik ez, ni denboraz aurretik esnetu nintzen, lanean hasterako joana bainintzen kasik zeruko erreinuetara.

Segituan ulertu nuen nik hura ezin zitekeela hain triste eta hain azkarra izan, gaizki atera zitzaigula eginbeharra, eta ni goibel xamar jarri nintzen señoritaren disgustua ikustean, ze esan baitzidan koitaduak ez zuela batere gozamenik hartu, ezta arrastorik ere, baina lasai egoteko, egingo genuela bigarren saio bat ere prezio berdinean, eta halaxe hasi zitzaidan bigarren hartan muxu hemen laztana han, koxka hemen kili-kili han, sekulako pazientzi zein goxotasunez, eta atzera ere piku-piku eginda jarri zitzaidan txismea eta juergarako prest. Eta bigarren saioan, aixkiriak!, inoiz inon gozatu ez dudane bezala gozatu nuen, baita berak ere, eta hasieran poliki antzean eta gorabeherak kuido eginez bezala hasi baginen, denborak aurrera egin neurrian gure mugimendu zein zoramenak bortitzagoak egingo ziren, mundialak, eta latoizko oheak txirrin-txarran murmurikatzen zuen gure egonezinen tenorera, eta berriz ere txirrin-txarran, eta bazirudien lehertu egin behar zuela munduak une hartantxe, eta ez nuen ikusten ahal deusik ere itsutu egin baitzitzaizkidan begiak, eta pasako genituen bigarren hartan berrogei minutu bezala aise, edo ordubete osoa ere bai igual, eta señorita xalobero hark hitz goxoak belarriratzen zizkidan xuabe suspiro eta arnasestuen erdian, bai eta gartsuki heldu gerritik ere konpasa galdu ez nezan. Eta halaxe jarraituko genuen biok oraturik eta blai izerdi patsetan noizbait bazetorkidala nabaritu nuen artean, eta futbolistak gola sartzen duenean ilusioa nola, hala-moduzko aurpegia jarriko zidan Trinidadek banindoala adierazi nionean, eta baietz berak, keizurarik gabe uzteko joaten, ordua ere bazela-eta, egiteko orain azken eginahala, zeruko atean geundela-eta.

Handik puska batera jaiki nintzen ohetik paliza sekulakoa eman balidate bezala, kalanbreak eta hotzikarak sentitzen baintuen gorpuz guztian barrena, eta bereiziki erdi-partetan, eta nengoen moduan iruditzen zitzaidan ez zitzaidala inoiz gehiago xutituko, baina bai zera!, etxerako bidean ederki

lodituko baitzitzaidan aixtineko pasadizoa gogoratzean. Despeditzerakoan, señoiritak bi muxu eskaintze aldera, adierazi zidan gaurgero itzuli nahi banu, edo koadrilakoeak etorri nahi balute, bagenekielara nora jo, eta etortzeko beldurrik gabe, berezia egingo zigula tarifa nire moduko gazte indartsuei, bi mila pezeta besterik ez, nagusiei kobratzen zien erdia, prezioa ezin hobea zela eta animatzeko berandu gabe, eta nik baietz esan nion noski, aurki han nintzela osterara ere koadrilara osoarekin...".

Lanbertok bere kontakizuna amaitzean animatu egiten ginen apika gure artean pentsatzen genuen bostehun duro haiek bildu egin behar zirela nolana ere, ezin genuela hain errazki etsi, seiotatik batek behintzat izan behar zuela Goiko-Bentako gutziak probatzeko aukera eta ditxa, igual ni izango bainintzen zorionekoa, edo akaso anaia Pablo, edo Ziriako edo Luziano edo Gregorio, edo akaso berriz ere Lanberto, ze berak ere eskubide osoa baitzuen zozketan parte hartzeko, berak ere bere paga sartzen bati zuen kutxatxoan. Ordea argi geneukan puntu bat seirok: duro haiek noizbait lortzekotan egin beharrak zeuden lan estrak, ekintza bereziak, bestela ez baikenuen diru mordo hura sekula santan bilduko, eta hortaz, hauxe bota genuen hurrengo galdera: zer egin txanpon haiek lortzearren?

Handik laburrera otu zitzaigun anaia Pablori eta bioi bagenuela nolabaiteko era bikaina diru haiek lortzeko, eta huraxe zen hain zuzen guk bildutako amuarrain, hegazti, urra, lore eta beste mila gauza larunbateko feriarara jaitsi eta han saltzea, eta hain egokia iruditu zitzaien lagunei ideia non biharamunean bertan ekingo geniola egitekoari, ilusio zein amets goxotan murgildurik, eta estrain larunbaterako makina bat gauza bildu ahal izango genituen: onddoak eta xixoriak, matxakanak, bi amuarrain eta izokin bat, lore-xorta dotoreak, etxeko sorotik harrapatutako zenbait letxu, azelga nola azaburu, eta horiek guztiak bizikletetan kargatu eta ziztu bizian abiatuko ginen maldan behera ferirantza.

Guk pentsatu bezala ez ezik, hobe ere joango zitzaigun lehen salmenta egun hura, zeudenak eta bost saldu baikenituen etxeko-andre ozarten artean, gure grazia zela medio batik bat, eta jaso ere jasoko genituen makina bat enkargu, ea ekarriko al genien hurrengo larunbaterako hau eta bestea, edo beste zerako hura, eta guk irribarretsu baiezkoa ematen genien, nahi zuten guztia ekarriko genielara eta eskatzeko beldurrik gabe, gu komertzianta serioak ginela-eta oso. Eta halaxe hasiko zen guretzat palorama ezin esperantzatuago bat, lehen egun hartan bakarrik ia ehun duro irabazi genituen paseak, eta hurrengoan berriz beste hainbeste edo gehiago, eta ia ohartzeko kasik kutxatxoa leporaino eginda jarriko zitzaigun diruz, eta bostehun duroak paseak genituela errez jabetu ginenean, bada anaia Pablori eta bioi bururatu zitzaigun ea zergatik ez genuen hiru mila duro osatu bitarte itxaroten, martxa hartan aurki genituela bilduak haiek eta beste apur batzuk ere, kontu egiteko une batez zein espezial igaroko genuen seirok batera Goiko-Bentan estreinaldia burutzen, izango genuela gero zer kontatua eta zer gordea makinatxo bat denborarako. Koadrilakoei, berriz ere, primerakoa iruditu zitzaien burutazio hura, eta laudatu egin gintuzten anaia Pablo eta biok luzaro hain buruargiak izatearren, eta hurrena nehoiz baino gogotsuago jarriko ginen tarean, nork ederkien egiten zuena burutzen, ilusio txiki hark eraginda, eta egia esan iritsi zen eguna beste edonork baino gehiago saltzen genuena ez bairik gabe, hain ziren kalitate onekoak gure erosgaiak zein apartekoa gure trebezia nola egonarria, ze begiz joko gintuztela gainerako baserritarrek, gu bezalako mukizu troskilo batzuk

irabazpidea lapurtu besterik ez geniela egiten argudiatuz, eta segitzeko handik zakurraren ipurtzulora. Gu, ordea, ez ginen aise sutatzen harroputz haien amenazuen aurrean eta barre egiten genien gogotik begiratu txar haiei, eta geurean jarraituko genuen handik harrika ez baina patataka eta tomateka botako gintuzten artean, eta ez genuen, noski, bueltatzeko adorerik izango sekulan, hain izan zenez despedidea latza zein arriskugarria. Ez gintuen hark, alabaina, lar arduratuko, ezen atzera ere kutxatxo irauli eta mahai gaineko txanponak kontatu eta pila xuxen dotoretan jartzen genituen heinean, ziurtatuko baikeuen hantxe bazegoela nahikoa diru seirok Goiko-Bentara joateko, alajaina!, eta porsiakaso ere polikiago kontatzen genituen txanponak, banan-banan, eta ez, ez zegoela han hutsik, bazela han nahikoa diru jainkoarren! Orduan, pozaren pozez eta txit txoraturik hurrengo larunbata aukeratu genuen estrenaldi sonaturako, betiere larunbatez asti gehixeago edukitzen baikeuen gau partean hor zehar txirrin-txarran ibiltzeko, eta huraxe zen hortaz egunik egokiena Goiko-Bentara joateko, eta liparrik ere alferrikaldu gabe sikiera Lanberto bere señorita lagunarengana bidali genuen urgentziaren urgentziaz, esatearren sei lagun joango ginela larunbatean haraxeraino eta erreserbatzeko orduak eta behar adina señorita egun seinalaturako, ezin agoantaturik genbiltzala aspaldi batean eta ongi gogoan hartzeko erregu hura. Joan bezain haizetsu bertaratu zitzaigun Lanberto laster askoan, eta egina zegoela mandatua adierazi zigun irribarre ezin zabalago batez, egina zegoela por fin gure ametsa, gordeko zizkigutela ohe ezin aproposago eta señorita ponpoxenak, ongi apuntatua gelditu zela guztia letra doratzuko *registro* jartzen zuen koaderno dotorean, eta esan omen zion bere señorita lagunak gorde genitzala indarrak oro larunbaterako, ez ibiltzeko behintzat aste haren buruan kanpaia neurritz kanpo jotzen eta hola.

Baina zortea beti ez da gizasemeon aliatua izaten, eskapoan ibiltzen dela gehientsuenetan ere esango nuke beldur handirik gabe, eta guri ere ez zigun bada prexixo lagundu, zeren hainbeste urte, lan eta komeri ibili ondoren diru huraxe biltzeko, hara non ixten duten betirako Goiko-Benta palazio dotorea guk estreinaldia ondu behar genuen bezpera-bezperan!, eta ixtearekin ez konforme egonik gero, su ere eman zioten su harlanduzko etxe politari, ikus zezan bailara guztiak nola kiskaltzen zen betirako *desenfrenuaren* paradisua eta lukuriaren linboa, On Eutimio apaizak gozo bezain otzan adierazi zuen bezala, eta amaitu zirela handik aurrerako bailara haren izena zapuzten zuten lizunkeri nola pekatuak.

Hantxe bildu zen jendetzak ordea ez zituen apaiz tekela haren hitz zizkolatsuak entzun ere entzuten, eta apenas ikusten ahal zituen etxe argitsua jaten zuten sugarrak, ez berauek ikusgarriak ez zirelako baizik eta inork ikuskizun hari aurre egiteko adorerik ez zuelako, hain zen mingarri eta tristea eta justifikazina gobernuak hartu, On Eutimiok azpijokoan xaxatu eta guardiazibilek bete zuten erabaki mingotsa, horma haien barnean izurrite gorria eta legen beltza bizi zela bizi, eta ezin zela inondik ere tamainako kuxidaderik ametitu gu guztion hobe beharrerako, argudio egin zigutelarik. Eta guardiazibil batek ez, anitzek baizik, negar-malkoak ere isuriko zituzten ezkutuan, haiek ere antigoaleko bezeroak izaki, eta guztiak geldituko ginen etxerik gabe bezala apika, ezen han gauza askori erremedioa aurkitzen baitzitzaion halako saio onuro baten ondoren, eta behin barrenak ongi deskargatuz gero beste era batera ikusten omen ziren gauzak, hala zioen bedaio Mohamed Lanbertoren aitak, beharrezkoa zela oso noizipein Goiko-Bentara joan eta han pena eta laztasun guztiak isurtzea, jende asko libratu zela bere buruaz beste egitetik

halako etxe zorionekoei esker eta ez zegoela deretxorik etxe hari su eman eta hainbeste señorita kale-gorrian uzteko. Norbait penatze kotan ordea, gu penatuko ginen gehien, eta geldituko ginen hartara ez aurre eta ez atze, seko tristeturik eta patrikak inoiz ez bezala bete diru, zer egin asmatzeke eta tristuraren sareetan harrapatu rik amaitze ar zegoen uda guztirako.

Azken bidai suertatuko zitzaigun hartan ere ez genuen anaia Pablok eta biok aldaketa handirik antzemango bailara ausotsuan, ez bederen lehen begiradatxo batean, nahiz eta gero, egunak igaro ahala, ohartuko ginen baietz, gauza gehiegi aldatu zela han, triste zebilela jendea, eta pentsakor eta burumakur. Baina bi orduko bidai luze bezain aspergarriaren ondoren ez genuen anaia Pablok eta biok ezer arrarorik sumatzen ahal, oraindik tren ziztrin haren zirkin eta tiriki-tarrakak baizik ez baikenituen sentitzen burmuinetan, eta jendearen oihu eta geltokietako iskanbila eta tren aldaketa egin genueneko ordu erdiaren sargori itogarria. Iristean, hortaz, txoil poztu ginen, eta ez genuen hango heltze ar zegoen hondamendiaren berri zenbait egun beranduxeago baizik izango, eta guk, anaia Pablo eta biok, treneko eskaieratatik salto egin eta izeba Iri senda maitearengana joko genuen lasterka bizian, eta berak betiko legez besoak zabal-zabal egin eta biak bere soineko estanpatuaren kontra estutuko gintuen gorputzeko indar guztiarekin, eta hala izanik, ez zegoen inondik ere ezer txarrik susmatzeko arrazoirik. Eta lehen salutazioen ondoren etxeranzko bidea hartuko genuen hirurok, bat baino mutuago besteak, ezen latza baitzen eta malkartsua estrain aldapa haren igoera, eta gainera gu hiruon artean ez baitzen alferrikako hitzik behar, eta primeran korritu izan genituen lehen pausoak harik eta Mohamed Lanbertoren aitarekin topo egin bitartean, eta huraxe izango zen bideko lehen eta azken geldiera pozgarria. Mohamedek betikoan ziharduen, iristen ziren tren eskasei sar-irteerak ematen, eta bada nola egunean bi besterik ez ziren bailarara iristen, egun guztia gelditzen zitzaion libre hartara eta beste zereginetan jarduteko, zuhaitzak aldatu eta animalia desberdinak harrapatzeko, eta esaten zenez, Mohamedek Afrikatik ekarritako zein hemen harrapatu rik piztiei esker sekulako zoologikoa biltzea lortu omen zuen, probintziako handi eta aberatsena. Hainbestearainoko zenik ere nik ezin esan, baina esan dezaket, beldurrik gabe gainera esan, bere garrantzia ez zela makala eta are gutxiago oraindik bere ikusgarritasuna, hainbeste eta hainbeste jende, bertatik eta ez hain bertatik, Mohameden etxera inguratzen zenerako, eta ez bakarrik ume edo animaliazaleak, baizik eta zientifiko eta doktore asko ere bai, eta tartean-tartean hala-moduzko sasiletraduren bat ere ezin falta. Eta nolaz eta gure adiskide Mohamed ez zen tontoa, eta agortuxeak behar zituen ordurako bere amaginarreba Florentziren herentzi sosak, gastua hemen gastua han, bada jakinduria handiz deliberatu zuen anabasa hura guztia txukun-txukun jarri eta sarreratxo bat kobratzea animalia dotore haiek ikustearren, eta egun batetik bestera, eta estatuko egunkari batek egin zion erreportaje argazkidun bat zela medio, etxea jendez gainezka jarriko zitzaion derrepentean, eta bisitariak erruz utzitako diruekin Mohamedek beste etxe bat eraikitze ko lain izango zuen, eta Lanbertok berriz, artean bisitari-gida zenak, motorra erosiko zuen kristorena bere estrain irabazkizunekin.

Azken uda hartan, Mohamedekin topo egin genuenean, kontatu zigun negu partean bisitaldiekin amaitzea erabaki zutela, ez zegoela iskanbila hura paira zezakeen kristaurik, neka-neka eginak zeudela hainbeste hitz eta azalpenez, eta amaitu zirela betirako bisitak, animaliek ere eskertuko ziotela poliki erabaki irmoxe hura. Baina anaia Pablok eta biok trixteska xamar aurkitu

genuen gizon hura, eroria bezala apika, eta harritu egin ginen zertxobait, Mohamed izatez alaia baitzen inon balego alaitasunik, eta ez zen beregan normala beraz irribarre falta hura edo neke itxura hura.

Mohamed agurtu, Lanbertori eskuminak emateko agindu eta bideari ekingo genion ostera ere hirurok, eta ahantzi egingo zitzaizkigun anaia Pablori eta bioi Mohameden tristurak, berak hain txukun landatu zituen arbolak bistatzearekin bat, eta urtero egin ohi bezala adarretatik eskegirik zirauten letreerotoak irakurriko genituen ozenki, izeba Irisendaren irriñoen laguntzaz: eta hala hasiko ginen hemen *araucaria excelsa* leituz eta haraxeago *citrus aurantium*, eta orduan esango zigun izeba Irisendak lehenak Chiletik ekarriak zirela eta bigarrenak berriz Txinatik, eta hurreraxeago jarraituz ikusiko genituen arrantzarako kainaberak ziruditen bambosa vulgaris-ak, bi koloretakoak, beltzak zein orlegiak, Japondik ekarriak hauek gure ustetan, eta hurrena ikusmiratuko genituen *ulmus campestris* erorixeak, bai gure herrikoak hala nola Ingalaterra eta Siberiakoak ere, eta *cornus sanguinea*-k eta *tylia platybylos*-ak eta *diospyros kaki*-ak eta *camettia japonica*-k ere bai noski, eta zer esanik ez anaia Pablo eta biontzat guztietan eder, grandios eta zaharrenak ziren *seauoia sempervirens* galantak, zeinak zituzten ehun metroko luzera eta bi mila urte pasatsu igual, eta *tulipa gesneriana* lorexorta koloretsuak eta *cedrus libani* mardulak, eta izugarri eskasak omen ziren *taxodium distichum* bakartiak ere dandai zirauen urguiluz, eta *cupressus arizonica* politak eta geure-geureak ziren gainerakoak, eta Mohamed honantz etorri aurretik hemen behar zutenak izan, hala nola *acacia dealbata*-k eta *fraxinus excelsior*-ak eta *quercus faginea*-k eta *castanea sativa*-k eta *fagus sylvatica*-k eta beste hainbat eta hainbat.

Izeba Irisendaren baserrira bertarutzenago gindoazen neurrian, inguruko zenbait baserri itxiak bezala ikusiko genituen anaia Pablok eta biok, eta ez bi edo hiru dezente gehiago baizik, bai gure adiskide Luzianorena, bai Ziriakorena, bai eta Gregoriorena ere, baina ez genuen ezer galdetzeko adorerik edo gogorik izango, eta orduantxe hasiko ginen susmo txarrak geureganatzen, gauza beldurgarriak barrundatzen. Eta geure poltsa gorri-urdinak logelan utzi eta hurrena mandiorantz zuzenduko genituen oin hots zalapartariak, eta behin han, eseri eta gogoetei ekin genion anaia Pablok eta biok, eta akordatuko ginen zein malko gaziak bota genituen Goiko-Benta haien era traketsen erre zigutenean, nola gelditu zen bailara guztia malenkoniaren uretan murgildua bezala, hits eta burumakur sekulan ez bezala.

Eta akordatuko ginen nola hiru mila duro ditxoso haiekin, zenbait deliberazio-saioren ondoren, azkenean erabaki genuen herrira jaitsi eta bigarren eskuko bizikleta bana erostea, eta sobratu zen diruarekin nola erosi genuen plazako kioskoan errebista-kolezio dotore hura, urtebete osoari zegozkion hamabi zenbakiak, eta ze iskanbila izan genuen gero banaketa egiterakoan, zenbaki batzuk lar ikusgarriagoak eta politagoak baitziren besteak baino, eta seiok laugarren eta bederatzigarrenari bota genien begia eta eskua, bi haietan azaltzen baitziren neskaxa titihandi zein ipurtalde erakargarrienak. Hura ere konponduko zen noizbait eta errebistak ziklistek egiten duten moduan tripaurrean ipini eta bailararanzko kamioari ekin genion, gudatik itzultzen diren soldaduak bezain kontent eta ameslari, eragin eta eragin pedalei, nor baino nor bizkorrago, portuko lehen aldats gogorak hasi artean, ze behin estrain maldak hasi orduko ibitu egin baikin kolorezko globoen antzera, eta mengeldu egin zitzaizkigun sasoi guztiak derrepentean, eta han non hasiko ginen batzuk fuka eta jesukristoka, eta besteak ostiaka eta putaka,

metro erdia ere ezin aurreraturik, itolarri gorrian. Eta ez ginen ez guk nahi ordurako gain madarikatu hartara iritsi, non jartzen zuen *San Hilario 856 m.*, gorriak ikusita eta bost, eta tripaurreko errebistak blai-blai eginda izerdi ugariaren zioz heldu ere helduko ginen noizbait puntu hartara, eta orduantxe konturatu ginen guztiak ez genuela bizikleta herdoilduxe haiek erostean hasera batean uste izan bezalako ganga egin, akaso adarra jo ere egin zigutela apur bat, eta susmo haiek egiaztatu besterik ez ziren egingo maldan behera aparteko abiadan jarri ginenean, fila indian eta bihurguneak zabal-zabal, hartuz eta gorputza kamiorantz etzanez, ziklisten piura berberean.

Eta esan dut susmoak egiaztatu egingo zitzaizkigula jaitsiera hartan, eta halaxe da, ze hor nonbait estrain bizpahiru bihurguneak besterik bete ez genituenean, eta gure izu nola amorraziorako, batzuk gelditu ginen frenorik gabe, eta anaia Pablori hasiko zitzaion eskulekua dar-dar-dar hotzikarak jo bailuen, eta Lanbertori berriz askatuko zitzaion aurreko gurpila era ezin arraroago batean, eta batzuk nola besteek bukatuko genuen belaze eguzkitsu batean belarra janez eta ezin sustoa uxaturik zenbait egunen buruan. Eta esan bezala, sustoa apika pasa zitzaigun aldera eta amorrazioaren amorrazioz, tailerreko ijitoarengana jo genuen atzera ere bizikleta madarikatu haiek zamalkatuz, eta entzungor egingo zien gure kexu eta eskakizunei, eta algara galantak ere bai noizbehinka, eta azkenean irtengo ginen tailer hartatik bizikleta ezin apainago batekin, horixe izan baitzen anaia Pablo eta bion ustetan ijito harekin egin zitekeen traturik itxurosoena, sei burdin zahar saldu eta karrerazko bizikleta gorri-gorri hura erostea, azken modeloa, bi katalina eta bost pinoi, eta koadroa aluminiozkoa eta gainerako osagai guztiak *Campagnolo* etxeak firmatuak, eta tubularrak, eta bidoia Bahamontes handiarena izana, alajainkoa! Eta tailerretik irtetearekin bat gozo-gozo pentsatu genuen zer-nolako inbidia aurpegia jarriko ziguten Teodoro, Maximo, Kastor, Zesareo, Bonifazio eta Martzelo gure arerioek, hura ez zela ez galtzeko moduko gauza izango, egin behar genuela oraingo honetan barre gogotik kankailu haien kontura, bai galanki gainera!

Baina zortea beti ez da gizasemeon aliatua izaten, eskapoan ibiltzen dela gehientsuenetan ere esango nuke beldur handirik gabe, eta guri ere ez zigun bada prexixo lagunduko, behin San Hilario gainditu orduko Ziriakok sekulako ziztuan jaitsiko baitzituen lehen bizpahiru bihurguneak karrerazko bizikletaren gainean, lehen bizpahiruak, laugarren bihurgunea xuxen-xuxen hartuko baitzuen, ahantzi baillitzaio bihurguneak normalki okertuxeak izan ohi direla, eta hara iristean han non aurkituko genuen Ziriako gerizondo baten azken adarretan tartekatua, marmar oinazetsuan eta gure bizikleta gorri-gorria berriz bide-bazterrean txiki-txiki eginda eta burdin anabasa bihurturik. Eta halaxe amaitu ziren ditxosozko hirurehun duro haien paraderoak, itxuragaiztoan eta ezin tristeago, eta nork esan behar zigun guri aurrezki ongi landu haiek azkenean baloi bat erosteko sos bihurtuko zirenik, horixe emango baitzigun txatarrariak burdin haien truk, baloi bat doi-doi erosteko dirua, eta pentsatzen genuen egiaz ez zela munduan baloi huraxe baino garestiagorik mundu osoaren bueltan izango, ez noski, ba ote zegoen akaso nonbait hirurehun duro kostaturiko baloirik?

Hurrengo egunetan izango genuen anaia Pablok eta biok bailaran gertatu behar zuenaren berri jakiteko parada franko, eta hala, batean eta bestean galdetuz, honi zein hari entzunez, azkenik jakingo genuen guztia, batik batik Lanbertori esker, berak esango baitzizkigun besteek sekulan kontatuko ez

zituztenak, penaz edo beldurrez, edo auskalo ze arraiogatik. Eta orduan gu ere seko tristatu ginen, guregatik baino gehiago bailarako jendearengatik, eta hango arbola eta animala eta baserri eta mendi muinoengatik, eta batez ere noski gure izeba Irisenda maitearengatik. Eta Lanbertoren azalpen hits bezain mingarriak belarriratzen zitzaizkigun bitartean, ohartuko ginen anaia Pablo eta biok lehen lau egun haietan ikusitako zenbait gauzez, baserrien hustuketez, hainbat jenderen faltaz, Luzianoren eta Ziriakoren eta Gregorioren paradero ezezagunaz, eta beste milaka gauza ere egunaren argia bezain tailis ikusiko genituen.

Era bertsuan, izeba Irisendaren zenbait portaera ere ulergarriak gertatuko zitzaizkigun azalpen haien ondoren, eta orduan laster askoan konprenituko genuen zergatik zebilen hain triste, zergatik ez zigun jada errietarik ematen edo hitz gordinak ez esateko gero agintzen, edo txoriak eta igelak eta katuak paketan lagatzeko esaten, edo ez ibiltzeko nesken atzetik zerrikeriak egiten gomendatzen, edo errezatzeko gogotik eta irakurtzeko Biblia, horiek ez bestek salbatuko gintuztela-eta infernuko garretatik. Horren orde, anaia Pablok eta biok sukaldean harrapatzen genuen beti izeba Irisenda maitea, goiz-txinta izan edo ilunabar ñabarra, beti hantxe, mahai aurrealdean kixkur-kixkur egina eta begiak leiho itxian itsatsiak, errotarantz begira-begira, eskutan Biblia zuela eta mahai manteldunaren gainean, irrati ttikia, sekulan amaitzen ez ziren irrati-nobelak eta bolero goibelak entzutearren, eta irrati txikiaren alboan kutxatxoa, non bere kanpoaldean eskuz landua *Donato* izena zegoen, bere anaia zenaren izena alegia, edo gure osabarena. Eta bada han, kutxatxo hartan, gure osaba Donatoren errautsak gordetzen ziren, eta anaia Pablori eta bioi hasera batean erreparoa ematen zigun, eta nazka ere bai apika, kutxatxo hura irekitzea; ordea gero, denboraren poderioz eta ohituraren indarrez, ohitu egingo ginen osaba Donatoren presentzi berezi hartara, eta solastu ere solas egingo genuen maiz errauts hauskara haiekin, oraindik osaba Donato errotan bailegoen bere irribarre sano zabalarekin. Eta primeran akordatzen ginen oraindik zein ederki pasatzen genuen osaba Donatorekin errotan, gari eta era guztietako bihiak ehotzen, eta nola laguntzen genion tarea polit hartan neka-neka egin bitarte, eta ondoren nola joaten ginen goraxeago zegoen presara eta bainatzen ginen hirurak larrugorritan, eta erakusten zigun osaba Donatok amuarrainak eskuz abildade handiz harrapatzen. Eta zein dotore eta zein azkar egiten zuen igeri ere maiz akordatzen ginen anaia Pablo eta biok kutxatxoa ikuste aldera, Tarzanek bezain ongi eta espezial bai behintzat, eta nola mantentzen zen ur azpian gordea nahi adina denboraz, hamar minutuz igual, eta nola asaldatzen ginen gu osaba Donato azaltzen ez zela ikusiz. Baina beti tiento eta setaz begiratzen gintuen osaba Donatok uretan egoten ginen bitartean, ezen presatik jauzi ezkerro baten bizitzak egiten baitzuen berea, eta ez zen hil zaharra presan bainuketan zebilen kanpotar bat, presatik jauzi eta itto ez baina errotarriek txiki-txiki eginda aurkitu zuen osaba Donatok izuaren izuz, eta orduz geroztik areagotu egin zituen neurriak geurekiko.

Izeba Irisenda ilunpetan errotarantz begira aurkitzen genuenean, kutxatxoa aldean zuela eta Biblia magal-magalean, anaia Pablo eta biok atsekabetu egiten ginen zeharo, eta bere inguruan esertzen ginen zein baino zein ixilago, eta orduak igarotzen genituen postura hartan jarriak, soina lurrean baina oroimena egun beltz hartan jarria seguruenera, huraxe izango baitzen bailarako egunik tristeena, Goiko-Benta erre zigutenekoa baino goibelagoa oraindik, eta egun harez geroztik izeba Irisenda ez zen bere onera itzuliko inoiz, eta mihiztoz zenbaitek esaten zuen emakume hura erotuxea zebilela,

bakardade zamatsu hark erraiak jaten zizkiola apurka, zoratu egiten zuela oroimen haren tormentuak. Baina izeba Irisenda ez zen erotzen ari, gezur galantak besterik ez ziren esames haiek, bakarrik izeba Irisenda asko akordatzen zela bere anai maitearekin, horixe zen guztia, eta hori ez zen noski nahikoa arrazoi emakume hura burua galtzen ari zela esateko, gainera ez zen bera bakarra gure osaba Donatorekin akordatzen zena, bailara guztia akordatzen zen berarekin neurri batean edo bestean, gure osaba Donato munduko pertsonarik onena baitzen. Egia da, bai, maiz akordatzen zela gure izeba Irisenda azken egun ilun hartaz, eta oroimen hark ere gau eta egun tormentatzen zuela ezin esan faltsukeria denik, ez, baina hortik gure izeba Irisenda maitea erotzen ari zela esatea jauzi galanta zegoen, amildegi bat, eta ezin anaia Pablok eta biok tamainako irainik ametitu, eta ez genuen ez egiaz horrelakoetan ameto egiten, eta egurra banatu behar izango genuen noizpehin zenbait aho zikin isilarazteko.

Guri ere, anaia Pablori eta bioi, ez zitzaigun, nahiz eta urteen gurpila etengabea izan, berehalakoan osaba Donatoren heriotza mingotsa ahaztuko, ez eta bailarako edonori ere, pasadizo haiek izango zirenez jendeak gogora zitzakeen uher eta latzenak. Gaurkoan bost uda beteko dira gure osaba Donatok oinak aldarean jarriak zituela jada bere nobia politarekin ezkontzeko, eta hala iritsi zen behingoz uztailleko hogeita bigarren eguna, ezkon-eguna, eta jarri zen bailara guztia ezin dotoreago gure osaba Donatoren lotura ospatu asmoz, eta anaia Pablok jantzi zuen bere gorbata gorria eta nik berriz urdina, eta izeba Irisendak estreinatu zuen gure amaren partez ekarri genion soineko loredun estanpatua, eta osaba Donato jarri zen Tyrone Power baino eleganteago, fieltrozko sonbrero, traje txuri eta zapata txuri-beltz eta guzti.

Baina zortea beti ez da gizasemeon aliatua izaten, eskapoan ibiltzen dela gehientsuenetan ere esango nuke beldur handirik gabe, eta osaba Donatori ez zion prexio lagunduko, ezkontza hura ez baitzen sekulan ospatuko, bere nobia polita, Genobeba izena zuela egingo nuke apustu, ez zelako parroikiko aldare nagusiaren aurrean azalduko, auskalo zergatik, eta ordubetez zain egon ondoren On Eutimiok deliberatu zuen ezkontza bertan behera uztea, emakume hura ez baitzen inon ageri, eta ez zen egiaz sekulan bailaran ostera ere azalduko.

Gero, ilunabar partera, orduak eta orduak osaba Donato kontsolatzeko ahaleginetan jardun ondoren, eta artean negar etengabea baizik isuri ez zuenean, sukaldeko mahai albotik altxatzeko izugarrizko indarrak egin eta bere ahots lodikote harekin adierazi zigun bueltatxo bat ematera zihoala eta aurki itzuliko zela, eta egoteko lasai.

—Joango gara zurekin, nahi baduzu...

—Ez, mutilak. Beste batean beharko du...

Eta halaxe ikusi genuen izeba Irisendak eta anaia Pablok eta biok gizon okertuxe hura estartan behera aldentzen eta aldentzen, zigarro-keak atzean uzten zituela irudiak eginez, eskuinean betiko urrondo-makil xuxen bezain fin hura leunki helduz, pauso geldoz, nekatuz, betirako urruntzen. Guk estrain egunean betetzen genuen bide berbera ibiliko zuen uztailaren hogeita bigarren hartan osaba Donatok, baina berak ez zituen irakurriko arboletako letrero ttikiak, ez eta fijatu ere egingo sikiera anaia Pablo eta biontzat segail bezain mardulenak ziren sequoia sempervirens ikaragarrietan, berak, maldan behera zihoala, beste pentsamendu bat baitzerabilen buruan, eta horrexegatik

ez zuen lurreko harri-txintzarretan baizik erreparatzen, horiek ere ikusten bazituen bederen. Eta bidean Mohamedekin fortunatu zen, eta berak makinatan kontatu letxe, osaba Donatok galdetu zion Lanbertoren aitari ea ba al zegoen aurki beste trenik, eta Mohamedek ezer arrarorik susmatu gabe baietz erantzun zion, ordu-laurden eskasera pasatuko zela azkena, ea kanpora ote zihoan ala, eta osaba Donatok irriño triste bat ezpaineratu eta ezetz adierazi zion, ez zihoala inora.

—Urrunegira ez behintzat...

—Ongi joan orduan, Donato, eta ikusi arte.

Tren zaharkitu hark, ordea, ez zuen kilometro handirik ibiliko, geltokitik berrehun bat metro besterik bete ez zituenean makinistak trena tarrapatan geldiarazi beharko baitzuen, eta Mohamedek geltokitik trena hain zakarki gelditzen ikusi bezain fite, guzti-guztia ulertuko zuen, eta bertaratzeko adina adore bildu ondoren, ikusi nahi ez zuena ikusi beharko zuen ezinbestean eta begiak bere zuloetatik irteteko zorian, eta negarrari joko zion makinistak trena atzera bota eta gure osaba Donatoren zati barreiatuak jasotzeari ekitearekin batera. Eta hain itxura gaiztoan eta hain desegina utzi zuen trenak gure osaba Donatoren gorpua non Mohamedek agindu baitzuen herriko zenbait gizoni itxi zitzatela izeba Irisendaren baserriko leiho zein ate guztiak handik gu atera ez gintezen, eta ez uzteko, zeru-lurreko marru guztiak eginda ere, geltokira hurbiltzen, Donato gaixoa ez zegoela-eta inork ikusteko moduan. Eta halaxe egin zen guztia gure hobe beharrerako, eta anaia Pablo eta biok ez ginen penatu osaba Donatori azken agurra emate ez izanaz, ordea bai izeba Irisenda koitadua, asko gainera, eta etxe hartan ez zen giro izango handik hilabetera korreoz kutxatxoa jaso zuen artean, eta kutxatxoarekin bat osaba Donatok erosi zituen bi aliantzak, eta osaba Donatoren gorpua errauspena bailarako jende borondatetsu guztien artean izango zen ordaindua, sei mila duro, galanta benetan dirutza.

Azken uda hartan, beraz, ez zen bailaran jai girorik izango, eta egia esatekotan anaia Pablok eta biok izeba Irisendaren alboan igaroko genituen egunaren zatirik handienak, emakume haren begiak nola itzaltzen ziren ikusiz, irratiko inozokeriak entzunez eta inoiz ere etorkizunaz, hain hurbil zegoen etorkizunaz, hitzik egin gabe, sukalde hartan erlojuak aurrera egingo ez balu bezala. Eta sukalde hartan aspertu aspertzen baginen, kanpoan ez zen giro hoberik inondik ere, dagoeneko ez baitziren baserri hustuak eta aurpegi tristeak baizik ikusten ahal, eta gurdi-karabanak altzairuz topetaraino beteak eta ardirik gabeko belardiak. Eta lagun gutxi, ezen Luziano, Ziriako eta Gregorio joanak baitziren udaberriarekin, hala nola Teodoro, Maximo, Kastor, Zesareo, Bonifazio eta Martzelo gure etsai handiak ere, eta gutxitan ikusten ahal genuen Lanberto gure adiskidea, oso lanpeturik baitzebilien joera prestatzen, eta hala izanik, askotan anaia Pablo eta biok futbol-zelaira inguratu eta hantxe gelditzen ginen ate txuri-gorriei begira-begira, garai bateko partiduak gogoratu.

Eta orduan gogora etortzen zitzaizkigun sei-zortzi orduko partidu haiek, zeinetan normalean guk irabazten genien aurkariei, 40-36 edo 48-42 eta hola, pilota partiduak bailiren, eta Teodoro, Maximo, Kastor, Zesareo, Bonifazio eta Martzelok janzten zuten kamiseta txuri-berdea, eta guk berriz txuri-gorria, eta haien ekipoak izena zuen *Tximista K.E.*, eta gureak berriz *Alaitasuna C.F.* Sei izaten ginen alde batean eta sei bestean, eta han ez zegoen beste inorentzat lekurik, arbitroarentzat ezik, eta arbitroa Indalezio herrena izaten zen

normalean, herrena izaki berak ezin baitzuen baloiaren atzetik korrika ibili, eta Indalezio gaixoa zokoratua uztea ere ez zen bidezkoa, eta hala otu zitzaigun anaia Pablori eta bioi, jokatu ezin bazuen koitaduak egin zezala behintzat epailana, eta oso poztu zitzaigun Indalezio gonbitea luzatu genionean, eta negar ere egingo zuen apur bat emozioaren emozioz.

Han biltzen ginen, hortaz, futbol-zelaian, bailarako hamahiru mutikoak (artean ez zegoen besterik) arratsero-arratsero, sekulako partidua jokatzeko prest, eta ez ginen ilundu bitarte etxeratzen, eta ez ziren gehienetan gauzak ongi bukatzen, zeharo aldrebes baizik, suturik eta muturrekoka amaitzen baikenituen maiz hango jokoak, Indalezioaren aginduei atentzio izpirik prestatu gabe, baina beti erdi txantxetan bezala.

Guztietan ikusgarri nola gogoangarriena uda hartako finala izan zen, zeinean estreinatu genuen hainbeste izerdi kostaturiko baloi ronboduna, eta han bilduko ziren, futbol-zelaiari buelta emanaz, bailarako biztanle guztiak, ehun eta hamalau, propaganda egin baikenuen sekulakoa, kartelak eta paskinak eta orri-laurdenak bailara guztian barrena itsatsiz eta banatuz, eta hantxe aurkeztuko ginen, arbitroa erdian genuela, Tximista K.E. eta Alaitasuna C.F. ekipoak, ea nork eskuratuko hamahiruon artean erosi genuen txapeldun-kopa distiratsua.

Aldez aurretik estrategiak ongi taxutu, eta arbel batean zenbait jokaldi salatu ondoren, hantxe atera ginen Alaitasuna C.F. ekipokoak inoiz baino urduriago, eta inguruan hainbesterainoko jendetza bistatuz, gutxienez iruditzen zitzaigun Maracana estadioan geundela, eta haiek oihuak, eta haiek txalo eta bibak! Agindu moduan, partidua bostak puntu-puntu hasi zen, eta Lanbertok anaia Pablori pase luze sakona, honek petxuz dotore oineratu eta area txikirantz altura erdira erdiratu, eta han Gregoriok plantxaz bota eta burukada ezin bikainago batez Teodoroaren atea zulatu zuen lehen aldiz, eta jendearen bibak eta txaloak hilak esnatzeko modukoak izan ziren. Handik puska batera, lehen hogeita minutuak betetzear zaudela, Zesareok Bonifaziorekin bi paretakoa egin, Martzelo azkarrari pilota pasa, eta honek dribling hemen dribling han, konturatzerako Luziano atezainaren aurrean prantatu, eta honek besterik egin ezinean, zangotrabatu eta Indalezio arbitroak, sekulan ez bezala korrika eginez, penalti puntua seinalatu zuen txilibitua ozenki joaz, eta bana. Lehen erdia amaitzear zegoela, ordea, gure Ziriako argiak Teodoro atezain despistatua aurreratu xamarra ikusi, eta berrogeita hamar bat metrotik, ez motz ez bero, sekulako pilotakada luzatu zion eskuinez, eta guztiak ahozabalik utziz, baloia angelu-angelutik bigarrenaz barneratuko zen sareetan, eta bi eta bat.

Baina zortea beti ez da gizasemeon aliatua izaten, eskapoan ibiltzen dela gehientsuenetan ere esango nuke beldur handirik gabe, eta guri orduko hartan ere ez zigun prexio lagunduko, bigarren zatia hastear zegoela eta Tximista K.E. ekipoa gure joko bikainaren dominiopean genuenean, hara non hasi zen sekulako trumoi-ekaitza, zirimola ere esango nuke nik, eta kazkabarra arrautzen tamainakoa ia, eta bada suposatuko duzuen bezala han amaituko ziren futbolak eta kristo guztiak, norberak etxera iristen izan zuen-eta lan majo. Eta postura horretan jarraituko zuenez hamabost egun luzez, minutu bakarra ere atertu gabe, ohartzeko udazkena gainean genuen kasik, eta udazkenaren eskutik etorriko ziren lan eta eskolatze garaiak, eta hortaz, ez genuen partidua hura amaitzeko betarik izango inoiz, eta gu, Alaitasuna C.F. ekipokoak arras tristetuko ginen atzera ere, uste baikenuen aise irabazia genuela finala eta ekaitz hark gure aurkariak mesedetzen zituela soilik, inolaz ere gu.

Tankera hartantxe jardungo genituen anaia Pablok eta biok azken uda hartako egun zurbilak, uda joanen gogoetez barrenak goxatu nahian, eta etxean nola kalean haize bertsua zebilen, haize tristea, desanparatua, murrintsua, eta makinatan galdetzen genien geure buruei bailara jator hark merezi ote zuen hainbesterainoko gaztigurik, halako triskantzarik, eta egunak igaro ahala goibelago agertzen zen paraje hura anaia Pablo eta bion begi hebainduen aurrean, eta berriz ere adio esaten genien *Gorubide*-koei, eta *Arizti-Aundi*-koei, eta *Iturriaga*-koei, hits eta oinak lerratuz pasatzen ikusten genituenean. Bitartean, izeba Irisenda maiteak irratia entzunez eta Biblia irakurriz pasatzen zituen azken egun haiek, jendearen joaeraren gainean hitzik ere aipatu gabe, beti errotan itsatsiak zituela begiak, eta osaba Donatorekin etengabeko solas monotonoan, eta anaia Pablok eta biok galdetzen genionean zer egin behar zuen, irri egiten zigun eta "ni osaba Donatorekin geldituko naiz" mutu bat erantzuten, eta hortik aurrera bagenekien guk ez zegoela gauza handirik egiterik, gure hitzek irrist egiten zutela sukaldeko horma zaharraren gainean.

Abuztuak azken egunak betetze aldera, Lanbertoren motorra entzungo genuen etxe-atarian, eta anaia Pablok eta biok ulertu genuen heldua zela despedida ordua, eta patxada handiz mailadiak jaitsi eta etxeraino lagundu genion Lanbertori hitzik egitea asmatzeke, eta han, garai batean garrantzi handiko zoologiko izandako etxe hartan, zazpi kamioi kontatu ahal izan genituen, zein baino zein handiagoa, eta adierazi zigun Lanbertok haiek kargatu bezain agudo bazihoazela aitaren lurraldeetarantz, han bazegoela oraindik animalien tratuekin bizimodua aurrera ateratzerik. Hurrena, *Montesa* gorritik jaitsi eta esan zigun bera zihoan lekuan ez zegoela hondarra eta kixkalmena besterik, eta han ez zegoela motorrean ibiltzerik, han ganbeluak behar zirela, ganbeluak!, eta erregalo uzten zigula motorra, aterako geniola guk probetxurik urian, eta hartzeko mesedez eskainitako adiskidetasunaren truke, karburadoreak huts egiten ziola azken boladan eta eramateko tailerren batera errebisio ttiki bat egitera, huskeriaren bat izango zela eta asko poztuko zela oparia onartuko bagenio. Eta masail beltzaska haietatik behera irristatzen zitzaizkion malko lodikoteak ikusirik, anaia Pablok eta biok eskerrak eman genizkion gartsuki, eta bizimodu on bat izan zezala noranahi joanda ere opatu genion biok batera besarkatzen genuen bitartean, eta bazekiela nora idatzi, eta egiteko aldizka-aldizka behintzat, bizpahiru letra nahikoak zirela bizirik zirauela jakin genezan, eta guk ere eskribituko geniola zuzenbidea jaso bezain laster.

Handik lau ordutara kamioi-karabana itsusi bezain otzan hura gure aurretik iragango zen, eta agur egingo ziguten animali guztiek, jakingo bailuten beraiek ere ez zirela gehiago itzuliko, eta adio egingo zigun Juanito tximuak, eta adio Kosme papagaioak, eta adio berriz ere Domingo sugeak, eta adio egingo genien anaia Pablok eta biok guztiei pasatzean eta urruntzean, eta gure bistak harrapatzen ez. zituenean ere adio egiten jarraituko genuen, adio betirako, adio sekularako.

Abuztuaren heriotzarekin bailara ere hil egingo zen, eta izeba Irisendaren baserriak bakarrik mantenduko zituen ate-leihoak irekiak, eta tximini bakar batek isuriko zuen ke xurla urdinerantz, eta ez ziren dozena erdi ardi besterik ikusiko belazeetako berde-okreak zikintzen, eta irрати batek soilik hautsiko zuen kanposantu haren isiltasun eta oroimena.

Aurki iritsiko ziren makinatzarrak eta eskabadorak eta langileen hitz zantarrak, baina anaia Pablok eta biok ez genituen ikusiko, iritsia baitzitzaigun partitzeko ordua, ez baikintuen lur sustraigabetu hartara zilbor-hesterik lotzen, bai ordea izeba Irisendari, lur hura zenez bere izate eta gordailu osoa, bere arimaren pausalekua. Eta guzti horretaz jabetu bezain pronto, anaia Pablok eta biok ulertu genuen alferrikakoak zirela hitz guztiak, gure izeba Irisenda salbatze nahi egiazkoa zela eta gizakorra, baina akaso ez genuela eskubiderik halako erabaki inportante batean gure jarrerak azaltzeko, gure desio zintzoak kanporatzeko. Eta irailaren lehenean, goizeko zazpiak besterik ez zirela artean, izeba Irisenda logelaraino hurbildu zitzaigun, eta gure izenak goxo-goxo ahoskatuz, iratzarriarazi egin gintuen, eta aspaldiko partez erakusten ez zuen irribarra erakutsiz, gosaria prest zegoela eta bizkor ibiltzeko adierazi zigun, eta biltzeko arropak eta gainerako guztiak ere. Halaxe egin genuen anaia Pablok eta biok agindutakoa, eta zazpi erdietarako geltoki bidean jarriak geunden, anaia Pablok motorra eskutan zeramala eta ni bi poltsaz kargatua, eta izeba Irisenda maitea gu biok lepotik eztiki oratuz, eta orduan guk ere ez genituen arboletako letrero txikiak irakurriko, baina erreparatu bai, erreparatuko genuen luzaro sequoia sempervirens mardul paregabeetan, eta asko penatuko ginen gure sequoiak handik laburrera ur azpian murgilduak izango zirela akordatzean, eta gure sequoiak bezala bailara segail guzti hura ere.

Ez genuen geltoki zarpailean hagitz itxaron beharko, hamar minutu eskas barru iritsi baitzen tren orlegi estua, geltoki hartatik inoiz igaroko zen azkena, eta motorra atzeko bagoian kargatu, izeba Irisenda maiteari aurpegi laru, unatu, hilotz hartan bi azken muxu txikiak pausatu, eta hantxe utziko genuen ahanzturaren geltoki pitzatuan, eskutxoekin adio eta adio eginez, soineko estanpatu xaharrez jantzia, gure izeba Irisenda, hain triste, hain polita.